

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **6/2020 Mozioa, urtarrilaren 22koa, Arabako landa ingurunean existitzen den belaunaldi arteko eten digitala kentzeari buruzkoa**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko urtarrilaren 22an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

6/2020 Mozioa, urtarrilaren 22koa, Arabako landa ingurunean existitzen den belaunaldi arteko eten digitala kentzeari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Arabako landa-eremuan bizi diren berrogeita hamabost urtetik gorako pertsoneri Prestakuntza eta Gaikuntza emateko Programa bat martxan jar dezala, ikastaroen eta lantegien bidez, teknologia berrien erabilera, Internet, Online zerbitzuen kudeaketa, Open Data eta sare sozialak erabiltzen ikasteko, 2020. urtean hasi eta ondorengoetan.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote lan egin dezala, erakunde, entitate eta fundazio publiko eta/edo pribatuekin hitzarmenak sinatuz, ikastaro eta lantegi horiek martxan jartzeko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote bereziki bultza dezala gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen formakuntza programa horren bidez.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 22a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**